

BAO.194 2010-10-07
ZERBITZUEN ARAUDI OROKORRA

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalaren Kirol Patronatuaren instalazioak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea da Araudi honen xedea, Euskal Herriko Gorputz-Kultura eta Kirolaren zezeilaren 19ko 5/1988 Legearen xedapenek ezarritakoaren arabera.

BIGARREN TITULUA, ERABILTZAILAK

2. artikulua ABONADUA IZATEA ETA BANAKAKO ERABILTZAILEA

1. KAPITULUA: ABONADUAK.

Bermeon erroldatuta egon edo ez, moeta bakotxeko eta erabilera bakotxeko kuotak ordaintzeko prest dagozan persona guztiak izan daitezke Udalaren Kirol Patronatuko abonaduak.

Patronatuaren Batzorde Zuzentzaileak ezarritako urteko kuotak ordaindu beharko dabez abonaduek.

3. artikulua

Abonadua izateko:

- a) eskabide-inprimakia bete beharko da.
- b) behar dan dokumentazio osogarria emon beharko da.
- c) sarrerako kuoteari jagokan ordainketea egin beharko da, baita urteko lehenengo ordainketea be.

Baten bakarrik ordainduko da sarrerako kuotea. Abonaduak bajea hartzen badau, ez jako itzuliko kuota hori.

4. artikulua.

Abonadu moeta honeek egongo dira:

Familiakoa: Familia unidateko parte diran personek osotutako familiako abonua dago: aita, ama eta 22 urtetik beherako seme-alabak.

Banakakoa: 22 urtetik gorako guztiak izan daitezke banakako abonaduak.



Banakako ikaslea, behar bakoa, ezindua (%50etik beherako elbarritasuna izan ezker) eta 65 urtetik gorakoa: Bermeon erroldatuta egon behar dira. Baldintza guztiak beteten dabezan ikasleek, behar bakoek eta 65 urtetik gorako persona guztiek euki daikie abonu hori, eta 23 urtetik beherakoek be bai.

Elbarrituak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondo Izate Sailak jarrita daukan elbarritasun ehunekorik txikienetik gora daukienek eukiko dabe elbarritasun izakerea.

5. artikulua

a) Kuotak urtean behin ordainduko dira (urtekoa), edota sei hilero (garagarrila-abendua) edo, hiru hilero (urria-abendua).

b) Familia-abonaduak helbideratutako kuotak zatituta ordaindu daitezke: %50 urtarrilaren lehenengo hamabostaldian eta %50 martiaren lehenengo hamabostaldian.

c) Kontu korrontearen kargua, urteko lehen hamabostaldian egingo da, edo, jagokon aldiaren lehen hamabostaldian, ordainketa-moeta bakoetaren arabera.

d) Itzulitako errezibuak Udalaren Kirol Patronatuaren kontu korrontean sarturik ordainduko dira, abonaduak hartu dauzan ordaindu bako diru-kopuruen oharretan ezarritakoa betez. Horreek zenbatekoak epearen barruan ordaindu ezean, abonadutasuna galduko dau automatikoki.

e) Ordainketea helbideratu gura ez dauen abonaduak, Udalaren Kirol Patronatuaren kontu korrontean ordaindu beharko dau urteko kuotea, urtearen lehen hamabostaldian. Horrela egin ezean, abonadu izateari itxiko deutso eta, jarraitu gura izan ezker, barriro izena emon eta sarrera-kuotea ordaindu beharko dau.

f) Abonadua izaten jarraitu gura ez bada, horretarako dagoan inprimaki ofiziala bete beharko da eta karneta itzuli.

g) Urtarrilaren 31 izango da abonadua izateari ixteko gehieneko epea.

h) Abonadua, ordaindutako kuoteagaz ados ez balego, hilebeteko epea izango dau beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta kuota aldaketea eskatzeko. Kuotea ordaintzen dan egunetik hilebete pasau ondoren ez da inolako aldaketarik onartuko.

6. artikulua

Abonadua izateari itxi badeutso, bai bere borondatez bai kuotarik ordaindu ez dauelako, eta, barriro izatea gura izan ezker, ordaindu barik daukazan kuotak ordaindu beharko dauz eta sarrera-kuotea be bai.

7. artikulua

Karneta galdu badau edo ostu egin badeutsie, hainbat arinen jakinarazo beharko deutso Administrazioari.



Karneta galdu edo apurtu bada, edota ostu badeutsie, barria egin eta, horretarako jarrita dagoan tasea ordaindu beharko dau.

8. artikulua

Abonadu karneta, abonadurena berarena da eta ezin deitso inori transferitu.

Titularra ez danak karneta erabili ezker, titular horrek ezin izango leuke hilebetean karnetik erabili.

2. KAPITULUA: ERABILTZAILEAK

9. artikulua

Abonaduak izan ez arren, instalazioetara heltzen diran guztiak dira erabiltzaileak. Instalazioak erabilteko eskubidea daukie, Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako tarifak ordaindu eta gero.

Instalazioetara sartzeko kuotak ez dira izango bardinak, 22 urtetik gorakoentzat eta adin txikikoentzat, behar bakoentzat edo jubilatuentzat.

Ordaindu beharreko instalazinoen bat erabili gura daben erabiltzaileek, kiroldegira sartzeko ordaindu dabenaz ganera, jagokon diru-kopurua ordaindu beharko dabe.

3. KAPITULUA: KIROL TALDEAK ETA ALKARTEAK

10. artikulua

Euren entrenamenduak, lehiaketak eta erakusketak, udalaren kirol instalazioetan egin daikiez kirol taldeek eta federazioek.

Patronatuko abonaduak izan beharko dira udal instalazioak erabilten dabezan kirol taldeak eta federazioak.

Jokaldiak, entrenamenduak, erakusketak eta abar egin ahal izateko, instalazioak erabilteko baimena eskatu beharko deutsie taldeek eta federazioek Kirol Patronatuari.

Entrenamenduak edota lehiaketak egiteko eskariak, urte bakoetako maiatzaren 1etik bagilaren 30era bitartean egin beharko dira. Eskariotan honako datu honeek jarri beharko dira:



- Taldearen edo alkartearen izena.
- Afiliazino zenbakia.
- Helbidea.
- Telefono zenbakia.
- Arduradunaren izen-abizenak.
- Egin gura dan kirol jarduerak.
- Kategoria.
- Zenbat erabiltzaile izango diran.
- Eta aurkeztu gura diran bestelako datuak.

Instalazioak erabiltea baimentzen danean, erabiltzaileen datu honeek emon beharko dira, irailaren 30a baino lehen: izen-abizenak, jaiotegunak, helbideak, telefono zenbakiak, Patronatuko abonaduak ez diran kirolarien argazki bana, instalazioaren karneta egin ahal izateko.

Aurkeztu diran eskarien arabera emongo dira baimenak, instalazioen ordutegiak kontuan izanda, eta, Udalarren Kirol Patronatuko erispide teknikoak beteta.

Horreek baimenak denporaldi baterako emongo dira. Irailaren 30etik hurrengo urteko bagilaren 30era bitartekoa da denporaldi bakotxa.

Izakera erregularra daukien lehiaketa ofizialen kasuan, hilebete lehenago gitxienez, konfirmatu beharko dabez taldeek ordutegiak eta egunak. Zuzendaritzaek 15 egun hartuko dauz eskaria aztertzeko eta halan baderitxo ordutegiak aldatzeko, Patronatuaren erispide teknikoak kontuan izanda edo eskatutako ordutegietan, ez ohiko jardunak egongo diralako.

Entrenamenduak egiteko eskariak, Patronatuak berak antolatutako ekintzek baldintzatuta egongo dira, eta, aurretiaz onartuta egonda be, arrazoi horregaitik ordutegia aldatu edo bertan behera itxi beharra balego, ez litzateke egongo erreklamaterik. Halan eta guzti be, aldatu beharra egon ezker, astebete lehenago, gitxienez, jarri beharko da antolatzailerak jakinaren ganean.

4. KAPITULUA: IKASTAROAK ETA KIROL KANPAINAK

11. artikulua

Iraupen mugatua eukiko dabe kirol ikastaroek eta finkatutako helburuetan eta aurretiaz ezarritako programetan oinarrituko dira.

Izena emon beharko dabe aurretiaz ikasleek, kanpaina edo ikastaro horreetan parte hartu ahal izateko. Kiroldegiko abonaduak ez diranek txartel



tamainako argazki bat aurkeztu behar dabe txartel bat egiteko eta instalazioetan sartzeko.

Irakaslea aldatzeak ez dau, ezta gitxiago be, matrikulako dirua itzultzerik eragingo.

Ikastaro edo jarduera bakotxera finkatuko dira: ordaindu beharreko kuota, iraupena, parte-hartzaileen gitxieneko eta gehieneko kopurua, izena emon behar dan lekua, eta abar.

Ikastaro horreetako abonua hiruhilebetekoa edo hilebetekoa izan leiteke, iraupenaren arabera. Ikastaroak banketxeetan zein aurrezki kutxetan helbideratuta ordaindu daiteke. Ikastaroak hasi eta lehenengo hamabostaldiaren barruan pasauko dira ordainagiriak. Helbideratu gura ez dabenek, Kirol Patronatuaren kontu korrontean ordaindu leikie jagoken kuota, beti ikastaroa hasi baino lehenago.

Hori zehatz-mehatz ipinten daben ikastaroetan, hiruhilebeteko kuota ordaintzen danean, hilebeteko kuotearen %10eko beherapena ezarriko da.

Izena emon dan ikastaroan jarraitu gura ez bada, Kiroldegiko bulegoan emon beharko da horren barri hilearen lehena baino lehenago, nahiz eta kuota helbideratuta euki.

Ume eta gaztetxoek ekintzek (igeriketean izan ezik) oporraldia eukiko dabe Gabonetan zein Aste Santuan (eskolen egutegiaren arabera). Helduen ikastaroek ez dabe oporrik eukiko (oporretan, eskoletara jentea etortearan arabera eskolak alkartu egingo dira).

Antolatu diran ikastaroak edo jarduerak bertan behera ixtea erabagi daike zuzendaritzaek, egin be, horreek jarduerak egiten jarraitzeko arrazoi objektiborik ez badago egin daike. Horreetan kasuetan, ikastaroi eta epe horreei jagokezan kuota ordainduak itzuli egingo dira.

HIRUGARREN TITULUA, ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

12. artikulua.

Abonadu danek eukiko dabez honeek eskubideak:

a) Udalaren kirol instalazioetara doan sartzeko eskubidea, abonadutxartela erakutsita, jentearentzako zabalik dagozan ordutegian.



b) Igerilekua, aldagelak, gimnasioa, dutxak eta takilak doan erabilteko eskubidea, baita Patronatuak erabagiten dauzan zerbitzuak be, jagokonean iragarri eta gero.

c) Kirol ikastaro guztietan izena emoteko eta matrikuletako eskubidea, lekurik egon ezker, ikastaroko kuota ordaindu eta gero. Abonaduentzat, kuota hori txikiagoa izango da.

13. artikulua

Abonaduta ez dagozan banakako erabiltzaile guztiek, jagokezan kuotak ordaindu ostean, udalaren kirol instalazino guztiak erabilteko eskubidea izango dabe, jentearentzako zabalik dagozan ordutegi eta egunetan, hain zuzen be.

14. artikulua

Abonadu eta erabiltzaile guztiek, oro har, eskubidea izango dabe;

a) Udalaren Kirol Patronatuak eskaintzen dauzan zerbitzu guztiak erabilteko, zerbitzu bakotxaren araudiak ezarritakoa betez.

b) Instalazinoetako arduradunen edo beharginen identifikazinoa edonoz eskatzekoa, erreklamazinoak egin ahal izateko.

c) Araudi honen ale bat eskuratzeko.

d) Indarreko legediak onartuta daukan beste edozein eskubide izatekoa, eta, zer esanik ez, araudi honetan agertzen dan guztikoa.

15. artikulua

Abonaduen eta, oro har, erabiltzaile diran guztien betebeharrak dira:

a) Instalazinoak erabilteko araudi honetan ezarritakoa eta instalazinoetako behargin arduradunek agindutakoa betetea.

b) Instalazinoak eta euren ekipamenduak ondo erabiltea. Erabiltzaileak, ardurabakokeriagaitik edo gurata, apurtzen dauena, berak ordaindu beharko dau.

c) Instalazinoen funtzionamenduan ikusitako akatsen barri behargineni emotea: ezer apurtuta badago, akatsen bat ikusi ezker edo Araudi honetan ezarritakoa beteten ez bada.



d) Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatea, batez be, aurretiaz emondako ordutegiaren erreserbeari jagokonean.

e) Jarrita dagozan kuotak ordaintzea, sasoia danean.

f) Instalazinoetan portaera egokia izatea, beharginen lana erraztuz. Beharginakaz beti izan beharko da errespetuzko jarrera eta eurek agindutakoa bete beharko da.

g) Instalazinoetara sartzeko nortasun agiria erakustea, eskatzen deusienean.

h) Indarreko legediak aintzatetsitako beste edozein betebeharrak, eta Araudi honetan ezarritakoa be bai.

LAUGARREN TITULUA, INSTALAZINOETARA SARTU ETA EUROK ERABILTEKO ARAU OROKORRAK.

16. artikulua

Euren helburuen artean, gorputz-heziketa eta kirola bultzatzea daukien persona, kirol alkarte, talde, ikastetxe eta beste erakundeek, kirol instalazinoak erabilteko eskubidea izango dabe, Udalarren Kirol Patronatuak urterako onartzen dauzan prezioak ordaindu ezkerero.

17. artikulua

a) Instalazinoak erabiliko dira:

1. aurretiaz ezarritako ordutegian.
2. kasu bakotxerako jarritako programazinoaren barruan.
3. Udal Kirol Patronatuak, kasu partikularrentzat ezarritakoaren arabera.

b) Instalazinoetara sartzeko kontrol guneetan aurkeztu beharko dabe erabiltzaileek txartela, eta, holan egin ezean, jagoken kuotea ordaindu beharko dabe.

c) Instalazinoetara sartzeko txartela aurkeztukeran abonaduak, arrazoiren bategaitik abonadutasuna galduta daukala ebatzi ezkerero, edota arazoren bat badago, sartzen itxiko jako, baina, txartela kendu egingo jako, sartzea galarazoten deutson arazoa konpondu arte.

d) Instalazinoak erabili gura dabezan ikastetxeak, taldeka joango dira, emondako orduan eta euren irakasle edo begirale arduradunagaz. Ikasleak ezin izango dira joan eurak bakarrik.



e) Instalazioak erabilteko baimena emonda daukien kirol taldeak eta alkarteak, taldeko kide bakotxari jagokon txartela aurkeztu beharko dabe sartu ahal izateko.

18. artikulua

Ezin leiteke erre, jan, ez kristalezko gauzarik sartu instalazioetan, horretarako guneeetan izan ezik.

19. artikulua

Instalazioetara balio handiko gauzarik ez eroatea gomendatzen da, takiletan eta erropak gordeteko lekuetan itxitakoa Udalaren Kirol Patronatuak ez dauelako babesten kontratu bidez; halanda ze, horreek gauzak zaintzea ez da Patronatu honen erantzukizuna.

20. artikulua

Kirol jarduera puntuala egiteko bakarrik erabiliko dira takilak. Jarduna amaitzen danean, takilea hustu egingo da.

21. artikulua.

Arau orokor modura, ez da itxiko animaliarik sartzen Udalaren Kirol Patronatuaren instalazioetan. Aldi baterako baliobakotu leiteke arau hau, ezinbestean edo egoera zehatz batzutan, Udalaren Kirol Patronatuak holan erabagi ezkeru.

BOSGARREN TITULUA, KIROL PATRONATUAREN INSTALAZINOAK ERABILTEKO ARAUAK.

1. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

22. Artikulua

- Kirol instalazioak erabili ahal izango dabez: banakako erabiltzaileek, talde antolatuek, alkarteek, kirol taldeek, ikastetxeek, instalaziook erabilteko kontratua egiten daben erakunde zein pertsonak, programazio eta ordutegi baten barruan.

- Kirolaren interesa edo arazo teknikoak kontuan izanda, Udalaren Kirol Patronatuak instalazioen erabilera abonaduei eta erabiltzaile guztiei galarazoteko eskubidea gordeten dau, instalazioak erreserbata badaukiez be, aurretiaz oharra emon ezkeru.



- Instalazio guztietan kirola egikeran jazo leitekezan istripuetan Udalaren Kirol Patronatuak ez dau erantzukizunik eukiko.

- Udalaren Kirol Patronatuaren instalazioetan herritarrek antolatzen dabean ikuskizunen zein lehiaketen erantzukizuna, erakunde antolatzaileek izango dabe.

- Jantzikera egokiagaz sartu beharko dira kirol instalazioetara, kirol moeta bakoetak eskatzen dauenaren arabera.

- Instalazioetan, ardura barik edo txarto erabilteagaitik, apurtzen diranak erabili dauzan ikastetxeak, kirol alkarteak, erakundeak zein personeak ordainduko dauz. Lehiaketetan, kontrako taldeek apurtutakoa be esandakoen kontura izango da.

- Aldageletan, pistetarako pasilloetan, jesarteko mailadietan eta kirola egiteko ez diran beste eremuetan ezin izango da pelotakaz, baloiakaz ez ezegaz be jolastu.

- Aldageletatik kanpo ezin izango da erroparik jantzi ez erantzi, sexu bakoxtarentzat jarritako lekuetan baino ezin izango da egin.

- Gorputz Heziketa eskoletarako beharrezkoa daben dana emongo jake ikastetxeei, eta amaitzen dabenean bueltau egin beharko dabe itxi jaken materiala.

- Erabili ahal izateko ordutegia aurretiaz ezarri behar jaken kirol instalazioak erabili eta gero ordaindu behar dira. Aurretiaz ezarritako ordutegi horretan erabili ez dan denpora bat badago be (instalazioaren erruz izan ez bada) erabilitakotzat hartuko da, eta ezin izango da eskatu ordutegia luzatzerik.

- Zuzendaritzeari eskatu behar jake baimena Patronatuko instalazioetan propagandea ipinteko, eta berak erabagiko dau baimena emongo dan ala ez.

- Udalaren Kirol Patronatuak antolatutako jardueretan parte hartu aurretik mediku-azterketa bat egitea gomendatzen jake erabiltzaileei. Patronatuak, egoki baderitxo, eskatu egin daikez azterketetako emoitzak.

2. KAPITULUA: KIROL-PISTEA, SQUASHA ETA KANPOKO FRONTIOIAK ETA PISTAK ERABILTEKO ARAUAK.

23. artikulua

Estalitako kirol-pistak erabili ahal izateko aurretiaz egin beharko da eskakizuna, jagokon kirolaren kantxea erreserbetako, hain zuzen be. Kantxea gordetea gura



bada, urte horretarako Udalaren Kirol Patronatuak onartutako prezioa ordaindu beharko da.

Erreserbak honeelakoak izan daitezke:

1.- Hiru hilabetekoak, erreserbak egiteko araudiak ezarritakoa betez.

2.- Nozonozkoak, ordu librerik dagoanean.

Nozonoz egiten diran erreserbak, instalazinoa erabilteko sartzen zaranean ordaindu behar dira.

Kantxara, frontoira, squash-pistetara eta kanpoko pistetara, kirol-oinetako eta jantziakaz baino ezin daiteke sartu. Gomazko zorurik ez daukan oinetakorik ezin izango da erabili.

Squash-instalazinoetan, kirol horretarakoak bereziki diran erraketak eta pelotak erabiliko dira bakarrik. Galarazota dago zoru balzdun zapatilak erabiltea.

Instalazino honeetan ezin izango da boltsarik ez motxilarik itxi (horretarako takilak erabili behar dira).

3. KAPITULUA: IGERILEKUA ERABILTEKO ARAUAK

24. artikulua

Derrigorra izango da:

- Aldageletan, pasilloetan eta igerilekuan txankletak erabiltea.
- Bainujantzia eta bainuko txotoa erabiltea.
- Bainatu orduko dutextea.
- Luzetara uger egitea.

Galarazota dago:

- Beste erabiltzaileen osasunari kalte egin leikioen zauriakaz (tirita, gasa, merkromina, etab.) edo azaleko gaixoakaz bainetea. Horreetan kasuetan, medikuaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

- Bainetako gunean korrika ibiltea.

- Beste erabiltzaileei istripuak eragin deikiezan arriskuak eragitea edo gogait eragitea, hau da, jentea sakatzea, jauzi egitea, pertsonak hondoratzea edo bestelako jolasik egitea.



- Igerilekuan zein aldageletan aldarrika ibiltea.
- Dutxa behin eta barrero erabiltea.
- Bainurako gunean kaleko oinetakoakaz ibiltea edota jantzita egotea (bainujantziagaz eta toalleagaz baino ezin da egon; boltsak, motxilak etab. Galarazota dagoz).
- Igerilekuko ura zikintzea, jaboia erabiltea, txiza egitea, etab.
- Paperontzietatik kanpo, hondakinak edo sastarrak botatea.

25. artikulua

Kortxerak seinaleak dira, eta ez jostailuak.

Uger egiteko material osagarriak (oholak, baloiak, hegatsak, flotagailuak, urperako betaurrekoak, etab.) begiralearen edo soroslearen baimena izan behar dabe, baina, oro har, galarazota dago horreek erabiltea.

26. artikulua

Unean uneko beharrizana kontuan izanda, igerilekuko kaleak sorosleak edo begiraleak bananduko daut:

a) Erabiltzaileek uger egiteko kaleak:

Kalearen eskoiko alderditik egin behar da uger, geratu barik. Atsedena hartzeko ezin izango da kaleetako ertzetan geratu, bainu libreko kalera urten beharko da.

Erabiltzaileek uger egin daien kale bat baino gehiago badagoz prestauta, besteei kalterik ez egiteko, norberaren mailara egokitzen dana aukeratu beharko da.

b) Bainu libreko kalea:

Inori kalterik egin barik eta ezarritako araudiak beteta egin behar da uger.

27. artikulua

Udalaren Kirol Patronatuak ez dau erantzukizunik eukiko ugerrean jakin barik edota zuhurtasun barik erabili daben erabiltzaileek izandako istripuen aurrean. Hori dala-eta, erabiltzaileak oinakaz hondoa jotzen ez dauen igerilekuan



uger egiteko jakin egin beharko dau ugerrean. Era berean, erabiltzaileak daukazan gaixotasunen barri emon beharko deutso sorosleari edo begiraleari, baita beraren segurtasunari kalte egin leikion egoeraren bat badauka be (bihotzeko gaixotasunak, epilepsiak, etab.).

14 urtetik beherako erabiltzaileek, gurasoakaz edo tutoreakaz egon beharko dabe, arduradun bategaz ez dagozan adin-txikikoei ezer jazo ezkeru, Zuzendaritzeak ez dau erantzukizunik eukiko.

Begirale-sorosleari, igerilekuko arduradun legez, begirunea gorde behar jako beti eta igerilekuaren erabilereari eta erabiltzaileen jarrereari buruz emoten dauzan aginduak bete egin beharko dira.

28. artikulua

Eusko Jaurlaritzeak indarrean daukan legedia kontutan hartuta, eta ahalik eta erabiltzaile gehien sartu ahal izateko, 3 metro koadroan, gehienez, persona bat egon ahal izango da, kopuru horretatik gora ez jako inori be itxiko igerilekuan sartzen. Behar izan ezkeru igerilekua erabiltzeko txandak ipini daitezke, danak sartu daitezkan (103 personarentzako edukierea).

4. KAPITULUA: GIMNASIOA ERABILTEKO ARAUAK

29. artikulua

16 urtetik beherakoek ezin dabez erabili makinak ez pisuak.

Kirol jantzi eta oinetakoakaz bakarrik sartu leiteke gimnasioan. Tatamian, barriz, ezin izango da ezelako oinetakorik erabili.

Makinetan ibilteko, derrigor erabili behar da toailea.

Ezin izango da itxi gimnasioan boltsarik ez motxilarik (horretarako takilak erabili behar dira).

Gimnasioan eta beste instalazioetan ezin izango da jan (taberna-kafetegi gunean baino ez).

Gimnasioan erabilitako tresnak behar dan moduan itxi behar dira euren lekuetan, beste erabiltzaileek ondo erabili ahal izateko. Gimnasioko materialak eta ekipamentuak txarto erabili ezkeru zigorra jasoko da, hau da, eragindako kalteen gastua ordaindu beharko da gitxienez.

5. KAPITULUA: LASAITZEKO EREMUA ERABILTEKO ARAUAK



30. artikulua

Udalaren Kirol Patronatuak lasaitzeko eskaintzen dauen eremua 16 urtetik gorako personentzako da, baita adin txikikoentzat be medikuak halan gomendatu badeutse.

Zerbitzua erabili aurretik jagokon ordainketea egin beharko da kiroldegiko bulegoan.

Eremuan txankletakaz ibili behar da.

Saunan eta terma erromatarrean sartu aurretik nahitaezkoa izango da dutxatzea.

Komeni da saunara edota termara lehenengoz sartu aurretik gomendioak irakurtea eta horreei kasu egitea.

Gorputzaren azpian toalla bat ipini behar da derrigor, eta komeni da izerdia sikatzeko beste toalla bat erabiltea.

Galarazota dago saunan bizarra kentzea.

Gomendioak:

1.- Azalari arnasea hartzea eragozten deutson ezelango erropa barik sartu saunan.

2.- Erredurak eragin daikiezan metalezko objektuak kendu (belarritakoak, eskuturrekoak, eraztunak, erlojuak...).

6. KAPITULUA: ROKODROMOA ERABILTEKO ARAUAK

31. artikulua

Areneko kiroldegiko rokodromoa erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da mendiko federazioaren lizentzia eukitea.

Rokodromoa erabili ahal izateko gitxieneko edadea 18 urtekoa izango da (ikus 5. atala). Dana dala, adin txikikoek be erabili ahal izango dabe, honeek baldintzak beteten badabez:

- Gurasoakaz batera badoaz.
- GURASOEN edo TUTOREEN berariazko eta idatzizko baimena badaukie.

Rokodromoak marra bat eukiko dau 3 metroko altueran, muga legez, eta marra horren arabera izango da erabilera be:

Horreetara 3 metroetara arte. Eremu hau boulderrean ibilteko erabili ahal izango da. Banan-banan ibili beharko da eta ez da derrigorra eskaladako materiala erabiltea, zapatilak bakarrik. Eremu hau erabili ahal izateko, gitxienez, 16 urte euki behar dira.



3 eta 10 metro artean. Rokodromoko eremu honetan nahitaezkoa izango da eskaladako materiala erabiltea, hau da, sokak, arnesak... Eskaladan behar dan moduan eta segurtasunez ibilteko, hain zuzen be. Honetan ibilteko, gitxienez, pertsona bi ibili beharko dira: eskalatzailea eta euslea.

Zeharo galarazota dago desesekitzekoetatik gora eskalatzea.

Rokodromoan nahitaezkoa da espezialidadeko kirol oinetakoak (**eskalatzekoak**) erabiltea.

Kiroldegiko arduradunek baino ezin izango dabe baimendu eskaladako bidea aldatzea.

Galarazota egongo da rokodromoko materialak aldatzea edo manipulatzeari kiroldegiko arduradunen baimen barik, hau da, pisuak, txapak, desesekitzekoak.

Rokodromoa hobeto erabilteko eta dinamizetako, kiroldegiko arduradunak udalerriko eskalada klubak eta kirolarien iradokizunak entzuteko prest egongo dira.

Rokodromoaren erabilera mugatuta egongo da, honeen baldintzen arabera.

- **Galarazota egongo da** rokodromoa erabiltea balizko honeetan, segurtasun kontuakaitik:
 - A. Areto-futboleko partiduak edo entrenamentuak dagozanean,
 - B. Eskubaloiko partiduak edo entrenamentuak dagozanean.
 - C. Saskibaloiko partiduak dagozanean.
- **Baimenduta egongo da**, ostera, saskibaloiko entrenamentuak dagozanean rokodromoa erabiltea, beti be saskibaloikoei kalterik egiten ez badeutse.

Eskalatzeko teknikea ondoen darabilenek komeni da "top rope" teknikea erabili daiea, hau da, txikota goitik zintzilikatuta eskalatzea.

Rokodromoa erabili gura daben hezkuntza zentroek edo erakundeek erantzukizun zibileko aseguru eta zentroko zuzendariaren idatzia aurkeztu beharko dabez, eta baimena eskatu beharko deutsee aurretiaz Kirol Patronatuko arduradunei.

Kiroldegiko arduradunek rokodromoa erabilten ez ixteko eskubidea be badaukie, kasu berezietarako, hain zuzen be.



7. KAPITULUA: BOULDERRA ERABILTEKO ARAUAK

32. artikulua

Areneko kiroldegiko boulderra erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da mendiko federazioaren lizentzia eukitea.

Boulderra erabili ahal izateko gitxieneko edadea 16 urtekoa izango da. Dana dala, adin txikikoek be erabili ahal izango dabe, baldintza honeek beteten badabez:

- Gurasoakaz batera badoaz.
- GURASOEN edo TUTOREEN berariazko eta idatzizko baimena badaukie.

Boulderrean nahitaezkoa da espezialidadeko kirol oinetakoak (**eskalatzekoak**) erabiltea.

Galarazota egongo da boulderreko materialak aldatzea edo manipuletea kiroldegiko arduradunen baimen barik.

Boulderra hobeto erabilteko eta dinamizetako, kiroldegiko arduradunak udalerriko eskalada klubak eta kirolarien iradokizunak entzuteko prest egongo dira.

Boulderra erabilteko ordutegia kiroldegia erabilteko berbera izango da.

Boulderra erabili gura daben hezkuntza zentroek edo erakundeek erantzukizun zibileko aseguruia eta zentroko zuzendariaren idatzia aurkeztu beharko dabez, eta baimena eskatu beharko deutsee aurretiaz Kirol Patronatuko arduradunei.

Kiroldegiko arduradunek boulderra erabilten ez ixteko eskubidea be badaukie, kasu berezietarako, hain zuzen be.

SEIGARREN TITULUA: ERRESEBAK EGITEKO ARAUAK

33. artikulua

Instalazioak gordeteko, hiruhilero egingo dira zozketak (zapatuak, domekak eta jaiegunak be barruan dirala). Holan, lau zatitan bananduko da urtea: urtarrila-martia, apirila-bagila, garagarrila-iraila, urria-abendua.

Interesatuek aurkeztu beharreko eskabidean, honako datu honek agertuko dira:



- Taldeko arduradunaren izen-abizenak eta telefono zenbakia.
- Zenbat kide daukazan taldeak eta bakotxaren abonadu-zenbakia.
- Eskatzen dan eguna eta ordua.
- Kontu korrontearen zenbakia.

Instalazinoak gordeteko zozketak, hiruhilekoaren azken hamabostaldiko zapatu baten egingo dira.

Bertan dagozanek bakarrik hartuko dabe parte zozketan, eta, talde bakotxak, astean ordubete bakarrik hartu ahal izango dau txanda bakotxeko. Bigarren ordua lortu gura izan ezker, bertaratu diran guztiek, euren lehen aukerea egin arte itxaron beharko dabe, eta, lehentasun hurrenkera berean, gorde leiteke bigarren ordua.

Instalazino bakotxerako zozketak egingo dira.

Libre geratzen diran orduak, Areneko Kiroldegiaren bulegoan bertan zein telefonoz hartu leitekez. Artza Frontoiaren kasuan, frontoian bertan gorde beharko da. Zerbitzua erabili behar dan eguna baino 48 ordu lehenago egin leiteke erreserbea.

10 minutu igarota, erreserbea egin dauen personea edo taldea agertu ez bada gorderiko instalazinoan, Zuzendaritzeak erabili daike, beraren eginkizunetarako.

Instalazinoak erabilteko finkatutako kuotak, erreserbea egiten dan momentuan ordainduko dira, horreek bulegoetan egiten badira; telefonoz egin bada, erreserbatutako instalazinoa erabili orduko.

Hiruhilebeterako egin diran erreserben kuotak, hilearen lehenengo hamabostaldian ordainduko dira, % 20ko errekaruagaz.

ZAZPIGARREN TITULUA: KIROL EKINTZAK EZ DIRANETARAKO INSTALAZINOAK ALOKATZEKO ARAUAK.

34. artikulua

Kulturazko edo kirolezkoak ez diran ekintzak edota aparteko kirol ikuskizunak burutu ahal izateko, erabiltzaileek daukiezan eskubideak eta betebeharrak arautzea da, titulu honen xedea.

35. artikulua

Instalazinoetan, eguneroko kirol ekintzetatik kanpoko ekintzak egiteko eskubidea daukie persona fisiko guztiek, kirol eta beste edozein moztetako alkarte eta erakunde baimenduek, araudi hau bete ezker eta erabilpen horri jagokozan kuotak ordaindu ezker beti be.

36. artikulua



Kirol ekintzak ez diranetarako, prozedura honen bitartez alokatu beharko dira instalazinoak:

1.- Patronatuari zuzendutako eskabide idatzia aurkeztuko da, zein instalazino dan erabili gura dana eta noiz, esanez. Enpresa, pertsona fisiko edo alkarte eskatzailearen datuak jarriko dira: izena, helbidea, IFK, legezko ordezkaria, telefono zenbakia, ...). Ekintza honen helburu nagusia azaldu beharko da derrigor, eta musika jaialdia bada, zein abeslari edo talde dan.

2.- Udalaren Kirol Patronatuko Zuzendaritza batzordeak ez badau ohiko batzarrik egiten eskatutako eguna baino lehen, batzordeak edo lehendakariak erantzungo deuto eskatzaileari idatziz, ahal danik eta arinen. Erantzuna baiezkoa bada, 5 egun izango dauz eskatzaileak fiantzea ordaintzeko, holan egin ezean, erreserba ez da hartuko baliozkotzat. 5 egun horreetan fiantzarik jarri ez bada, balio barik geratuko da erreserba, eta libre geratuko da egun hori.

3.- Eskatzaileak ekitaldia egin ez arren, ez jako fiantzarik bueltauko.

Ekitaldia amaitu eta gero itzuliko jako fiantzea eskatzaileari, instalazinoetan kalterik ez dala egin egiaztatu eta gero.

4.- Ekitaldia egingo dan eguna baino hamabosta lehenago, antolatzaileak edo eskatzaileak:

- a) Udalaren Kirol Patronatuko bulegoetara joan beharko dau, instalazinoak kontratetako alokairu-kontratua izenpetzeko.
- b) Dirutan, transferentzia bidez edo bankuko taloiagaz ordaindu beharko dau instalazinoaren alokairua.
- c) Ekitaldi horretarako bereziki kontratautako erantzukizun zibileko polizea aurkeztu beharko dau, baita poliza hori ordaindu dauen erreziboa edo ziurtagiria be.

5.- Ekitaldia hasi baino bost egun lehenago, antolatzaileak edo eskatzaileak:

- a) Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen zuzendaritzeak emondako baimenaren kopia aurkeztu beharko dau Patronatuko bulegoetan.
- b) Instalazinoetako zerbitzuburuagaz batzar tekniko bat izan beharko dau.

6.- Alokatzeko aukera bi egongo dira:

- a) egun erdirako alokatzea: egun berbererako eskatutako ... etatik ...etara.
- b) egun osorako alokatzea: eskatutako eguneko ...etatik hurrengo eguneko ...etara arte.

Aukera bakotxak tarifa bat eukiko dau. Erreserba amaitzen dan ordurako instalazinoa hutsik egon beharko da, garbitzen hasteko prest.



7.- Baimenen eta lizentzien gastuak eskatzailearen kontura izango dira, baita egile-eskubideen ordainketak eta garatu beharreko ekitaldiak sortutako estatu, herrialde zein udal zerga guztiak be.

8.- Argindarra, garbitasun beharrak eta instalazinoa itxita dagoan birtartean bertako beharginek egindako orduen gastua ordainduko dau Udalaren Kirol Patronatuak.

Ekitaldiak eragindako beste edozein gastu (oholtzea, jesarlekuak, iragarkiak, zaintzailetak, takilak, etab.), eskatzailearen kontura izango da.

9.- Ekitaldirako arduradun bat izentauko dau Udalaren Kirol Patronatuak. Ekitaldia egiteko behar diran ateak zabaldu eta itxiko dauz, eta antolatzailearen esanetara egongo da, behar dauen edozertan laguntzeko eta sortu leitekezan arazoak konpontzen laguntzeko.

10.- Kontratau dan ekitaldian parte hartuko daben guztien portaerearen erantzukizuna izango dau antolatzaileak, baita ikus-entzuleena be.

11.- Instalazinoetan apurtzen dan guztia ordaindu beharko dau antolatzaileak.

12.- Antolatzaileak pankartak edo kartelak ipinten badauz, kendu egin beharko dauz ekitaldia amaitzen danean.

13.- Instalazino bakoetarako jarrita dagoan edukieratik gora ez da sartuko ikus-entzulerik.

14.- Aurretiaz egindako kontzesino bateri kalte egin dakikeola ikusi ezker, instalazinoak ukatzeko ahalmena eukiko dau Udalaren Kirol Patronatuak.

ZORTZIGARREN TITULUA: ZIGOR ARAUBIDEA

37. artikulua

Araudi honetan jarritako arauak ez betetea zigorra merezi dauen arau-haustetzat hartuko da.

38. artikulua

Behar dan moduko portaerarik ez daukien personei oharrazoteko edo hareek instalazinoetatik atarateko ahalmena daukie arduradunek.

39. artikulua

Diziplina erregimena



Arau-hausteen eta zigorren graduazioa

Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko Zuzendaritza batzordeko lehendakariak abonaduak zigortu daikez. Baina, ezarrita dagoan prozedurea oinarritzat hartuta eta arau-hausten eta zigorren graduazino honen arabera:

Hobenen sailkapena

Arau-hausteen sailkapena

Erabiltzaileen arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

- a) Arau-hauste ARINAK izango dira:
 - A1) Aldizkarietan, informazioa emoteko karteletan eta abarrean agertzen dan arautegia ez betetea.
 - A2) Gizalegez ez jokatzearren, indarkeria erabiltearren eta abar beste erabiltzaileei sortutako eragozpenak.

- b) Arau-hauste LARRIAK izango dira:
 - B1) Hutsegite arinak behin baino gehiagotan egitea.
 - B2) Zerbitzuak erreserbea egin barik erabiltea.
 - B3) Abonadu-txartela beste pertsona batzuei ixtea.
 - B4) Kirol Patronatuko beharginei identifikaziorik ez emotea.
 - B5) Besteak beste, instalazinoetako materiala, tresnak, kristalak eta osogarriak apurtzea.

- c) Arau-hauste OSO LARRIAK izango dira:
 - C1) Hutsegite larriak behin baino gehiagotan egitea.
 - C2) Kirol Patronatuko beharginei edo beste erabiltzaileei eraso egitea.
 - C3) Lapurretak, ebasketak eta iruzurrak.
 - C4) Beste erabiltzaileak arriskuan ipinten dauzan ekintzak egitea.
 - C5) Jarrera lizunak.

Zigorrak

Honeek zigorrak ezarriko dira, arau-hausteen sailkapenaren arabera:

- a) Arau-hauste ARINENGATIK: Abonadu-txartela kenduko da egun BAT HIRU artean.
- b) Arau-hauste LARRIENGATIK: Abonadu-txartela kenduko da ZAZPI egunetik HOGETA HAMAR egunera bitartean.
- c) Arau-hauste OSO LARRIENGATIK: abonadu-txartela kenduko da hile BATetik HIRUra bitartean edo Udalaren Kirol Patronatutik kaleratu egingo da.



Prozedurea

Arau-hausteen larritasun handiagoa edo txikiagoa zehazteko eta, jakina, ipini beharreko zigorra neurtzeko, elementu honeek be kontuan hartuko dira:

- a) Gurata egitea
- b) Nahasmendua
- c) Eragindako kalteak
- d) Behin baino gehiagotan egitea
- e) Parte hartze maila

BEDERATZIGARREN TITULUA

40. artikulua

Udalaren Kirol Patronatuko instalazioetako erabiltzaileen eskubideak bermatu ahal izateko, kiroldegiko kontrol-bulegoan Erreklamazio Liburua egongo da, erabiltzaile guztientzat.

Bere abonadu txartela edo ENA/NANA erakutsiz, edozein erabiltzailek, erreklamazio liburua eskatu daike eta erabili, honako datuak bertan adierazo eta gero: abonadu zenbakia edota ENA/NANA, izena eta abizen bi, helbidea eta instalazioetako zerbitzuetan edo funtzionamenduan ikusten dauen akatsa.

Bete behar dauen orrian agertuko da hori dana. Orriaren kopia bat berarentzat izango da. Idatziz hartuko dau erantzuna.

HAMARGARREN TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

41. artikulua

Araudi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko xedapenak eta erabagiak hartzeko eskubidea dauka Udalaren Kirol Patronatuak, instalazioak era egokian erabilteko asmoz.

42. artikulua

Araudi honetan sartzen ez diran kasuak, instalazioetako arduradunak konpondu beharko daz hasiera baten, gero, kasu partikularra konpondu ahal izateko, Udalaren Kirol Patronatuko Zuzendaritzara pasau daiteke.

43. artikulua



Araudi honetako aldaketak edo ezerezten bada, eta urte bakotxari jagokozan prezioak argitaratu egingo dira, ahalik eta zabalera handiena euki daian.

Bermeon, 2010eko irailaren 21ean
Alkatea
Xabier Legarreta Gabilondo



AR-E 04-02-10